



2022KO AURREKONTUEAREN MEMORIA

2022 aurrekontuak agintaldiaren erdikoak dira, eta horrek esan nahi du joan behar garela agintaldia osatzen duten proiektuak amaitzen eta borobiltzen. Herri plana integratzen duten oinarritzko partidak mantendu egiten dira eta beste berri batzuk agertu dira, herri planarekin zuzenean lotuta daudenak eta agintaldi hasieran ezarri ziren ildoekin eta proiektuekin bat datozenak.

Proposatzen den aurrekontuak Arrasate aurreratua egiten jarraitu nahi du, XXI. mendeko giltzarri. Bizi dugun paradigma aldaketa eta Covid-19 birusaren ondorioz jasandako pandemiak zuzenean eragin die herritarrei, jarduera ekonomikoei, hiri ekosistemei eta ekosistema naturalei. Horrek guztiak zerikusia du garapen eta aurrerapen sozial eta ekonomikoa planifikatzearekin ikuspegi inklusiboan eta elkarren menpekoetan.

Ildo horretan, pertsonak kokatzen dira herria eraldatzeko dinamikak sustatuko dituzten politika publikoen diseinuaren erdigunean, non komunitatearen, bizikidetzaren eta garapen iraunkorraren kontzeptuak eraldaketa horren bultzatzaile diren.

Ezin da ukatu Covid-19ak eragindako pandemiak bete-betean jo duela baina aurrekontu hauek pandemiaren ondorengoak dira, aurrera egitearen aldeko apustu irmoa, errekupeazioaren seinale.

Nahiz eta aurrekontua, bere horretan, finantza administraziorako lan tresna bat izan, erabiltzen da urtean zehar zer proiektu egin planifikatzeko eta zer lerro estrategiko jorratu behar diren gauzatzeko, eta lan tresna horrek azaltzen du funtsean zer norabide jarraitu behar den.

Partida batzuetara errekurtsio garrantzitsuak bideratu dira, izan ere, egitasmo batzuk, herri proiektuaren barruan ardatz izan dira eta jarraipen berezia behar dute. Hor kokatuko ditugu esaterako Juan Artzamendi Musika Etxearen birgaitze osterako ekipamenduaren partida (200.000 €), edota eraikin berri horren funtzionamendu, konponketa eta garbiketa gastuak (6.500 €). Bestalde, Arrasateko Mugikortasun Planetik eratorritako lan ildoek ere jarraitzen dute garrantzia handia islatzen aurrekontuetan, esaterako, Santa Teresa auzorako igogailu publiko sistema, TAO berriaren kudeaketa, bidegorri sarea osatzea edota Etxezarretaren parajearen berreskuraketa.

Klima Larrialdiak eta energia trantsizioak datozen urte eta hamarkadetako agenda baldintzatuko dute. Herri planaren zutabe garrantzitsua da klima larrialdiari aurre egitea, administrazio publikoak badu betebeharra eraldaketarekin aurrera egin eta paradigma berriaren baitan pausoak ematen jarraitzeko. Administrazio publiko gisa udalari ere herria jasangarriagoa egiteko egitasmoak gauzatzeko dagokio. Arrasateko herriak eraldaketa ekologikoa egiteko beharra dauka, hau da, energia ereduak aldatzen joan behar dugu, energia berriztagarriak sustatzen eta karbono oina murrizten. Klima Larrialdia mehatxu nagusienetarikoa da gure ongizatearentzat, eta ezinbestekoa da hura aintzat hartzea politikak diseinatu eta garatzerakoan. Erakundeek abian jarri behar dituzte politika eraginkorrak, eta herritarrekin elkarlanean ezinbestekoa izango da gizarte ohiturak aldatzen joatea, garraioan, plastikoen erabileran, kontsumoan, bizimoduan eta abarretan.



Agintaldiko zutabeetako bat da lehen pausoak ematea eredu jasangarriago batera salto egiteko, eta SHREC proiektu europarra ardatz hartuta, zein Debagoiena 2030 plataforman parte hartuta, ildo estrategikoak jorratuko dira herrian hainbat eraldaketa gauzatzeko, aurrekontuetan ere isla izango dutenak.

Hor kokatu izan dira Ekobulebarraren proiektua, zeina 2022 urtean amaituko den, Etxezarreta natur eremuari balioa ematea, mugikortasun planaren gauzatzea - oinezkoei lehentasuna ematen diena - bidegorri sarearen inplementazioa, argiteria publikoaren aldaketa led teknologiarra, herri barruan eta distantzia motzak egiteko autoaren erabilera murrizteko neurriak CO2 isurketa mugatzeko helburuarekin, bizikletaren erabileraren sustapena, eta herri irisgarritasunaren hobekuntza eta mugikortasun bertikala.

Udala behartuta dago Foru Fondoaren eboluzioaren aurreikuspenak eta likidazioak hurbiletik jarraitzen. 2022. urterako Foru Fondoaren aurreikuspena esperokoa baino baikorragoa izan da eta nahiz eta zuhurtziaz jokatzeko jarraituko dugun, udalaren finantza egoera baikorra da. Beste alde batetik, plusbalioen gaineko sententzia medio, egokitzapenak egin behar izan ditu Udalak diru sarrerei dagokienez, baina Foru Fondoaren eboluzio positiboari esker, Arrasateko Udalak izango du aurreko urtearekin alderatuta aurrekontu handiagoa 37.737.291,17 € koa. Azken 12 urtetako altuena.

Aurrekontuak islatzen du udalak garatu nahi duen kudeaketa modua. Esan nahi du aurrera egin nahi duen herri bat izatea, pertsona guztiekin eta guztientzat; elkarrekin ezinbestean elkarlaneko gobernu eta kudeaketa eredu bat izatea. Ezarri diren helburuetako batzuk dira elkarlaneko gobernantzaren eskemetan lan egitea eta herritarren parte hartzearen bidearekin jarraitzea. Hori guztia instituzioa bera ahaztu barik, bai ikuspegi politikoan, bai teknikoan. Ildo horretan, administrazio publikoak erronka berriei ere aurre egin behar die, betiere kontutan izanda pertsona-biztanleak direla kudeaketa publikoko ardatz nagusia.

Laburbilduz, lan ildo honek bi ardatz ditu oinarrian: batetik, jorratu behar diren hainbat proiektutan herritarrek parte hartzeko prozesuekin jarraitzea, eta, bestetik, udal funtzionamenduaren kudeaketa eraginkor eta gardena bultzatzea, bai arlo teknikoan, bai politikoan, ordezkatuta dauden alderdi politikoen arteko bizikidetzaren indartzeko.

Bide horretan bizikidetzak eta partehartzeak sail propio bat dute agintaldi honetan, eta egindako bideari jarraituz 2022. urteko aurrekontuen zati bat parte hartzailea izango da. Arrasateko Udalak aurreko agintaldian abiatu zituen lehenengoz aurrekontu partehartzaileak, eta horretarako 250.000 €ko partida bat sortu zen herritarrek proposamenak egin ahal izan zitzaten. Dagoeneko hainbat bider jarri da martxan aurrekontu partehartzailearen prozesua, eta balorazio positiboa egin den arren, hausnarketa prozesu bat medio, aurrekontu partehartzaileen dinamika berritzailea ezarriko da. Horrela, 2022eko aurrekontuetan jaso da 250.000 €ko partida bat, parte hartzearen egitasmoa aurrera eramateko, baina prozesua izango da ezberdina eta bi urte hartuko dira kontutan zenbateko osoa izanik 500.000 € koa.

Parte hartzearen alorrean, aurreko agintaldian prozesu bat jorratu zen parte hartzearen inguruko lanketa egiteko, eta agintaldi berri honetan, prozesua amaitu gura dugu, izan ere, administrazioaren etorkizuna ezin da irudikatu parte hartzerik gabe. Parte hartzea naturaltasunez txertatzen joan behar da administrazio publikoan, eta horrek eskatzen du iraganeko inertziak apurtzea eta arautzea, ahalbideratu dadin parte hartzea guztiz txertatua geratzea udal funtzionamenduan eta eragotzi dadin hura izatea momentuko gobernu taldearen nahiaren arabera.



Aurreko agintaldian hainbat prozesu partehartzaile jarri ziren abian eta ildo beretik jarraitu nahi dugu. 2022. urteari begira, partida batzuk jaso dira beste hainbat egitasmo aurrera eramateko, egitasmo partehartzaile ezberdinekin jarraituko da (haur kontseilua 21.716 €). Momentuan badaude hausnarketa kolektiborako egitasmoak, esaterako kirol azpiegituren mapa, eta prozesu horietatik eratorritako erabakiak aurrera ateratzeko partidak ezarri dira, hala nola, Kirol azpiegituren mapa proiektua egiteko (100.000€) edota Altamira auzoko ber urbanizazio proiektua egiteko behin prozesu partehartzailea bukatuta (40.000 €). Zentzu honetan, Udala Goikoaren auzoaren ber urbanizazio prozesua lantzen ari da Udala auzotarrekin eta proiektua elkarlanean idazteko 20.000€ bideratu dira. Era berean, San Juan auzoko plazaren eta saneamenduaren proiektua herritarrekin definitzeko prozesu parte-hartzailea aurrera eramateko 18.000€ bideratu dira.

Parte hartzearen kultura baliagarria da ezberdinen artean akordioa lortzeko, baita herritarrek administrazioarekiko duten distantzia txikitzeko ere. Horregatik, parte hartze arloaren baitan partida bat sortu da, 25.000 €, araudiaren prozesua bukatzeko eta aurrekontu partehartzaileak aurrera eramateko. Gainontzeko prozesu partehartzaileak beste partida batzuetan jorratuko dira egitasmoen barruan.

Bizikidetzari dagokionez, 2016. urteko irailean Arrasateko Udalak herri mailan bizikidetzara eraikitzeko lanketari ekin zion, abiapuntutzat hartuta herriko memoria berreskuratzea. 2016ko irailetik 2019ko martxora bitartean Memoriaren Mahaiak burutu eta bultzatu zuen lanketa, mahaia osaturik udalean ordezkari politikoak duten alderdietako ordezkariak. Mahaiaren helburu nagusiak izan dira Arrasateko memoria partekatua osatzea eta herri eremuan eraiki beharreko bizikidetzara prozesu zabalagoa bultzatzea, eta elkarrizketa esparru horren oinarri gidariak dira elkarlana eta kontsentsua.

Azken urteotan, mahaia urrats inportanteak eman ditu Arrasateko memoria partekatu bat eraikitze aldera eta herriko bizilagunen minak aitortze aldera. Hasiera batean mahaia diskrezioz aritu bazen ere, 2018ko azaroaren 8an egindako prentsaurrekoaren bitartez mahaia izaera publikoa hartu zuen. Bertan, mahaia harturiko konpromisoak ezagutzera eman ziren, bai epe motzera, bai etorkizunari begira harturikoak.

Legealdi amaierarekin mahaia hiru urteko lanari amaiera eman zitzaion, bai eta bete gabeko konpromiso eta urratsak izendatu ere. Emandako urratsek eta egindako lanketak suposatu dute udalerrian abian jartzea bizikidetzara eraikitze prozesu bat, baita ere, argi utzi du bizikidetzara eraikitzeak ekarri duela elkarlana eta kontsentsuan oinarrituriko bide konplexua jorratzea. Jakinda prozesuan eragile batek baino gehiagok parte hartu duela, orain arteko lan esparru nagusia izan da elkarrizketa politiko bermatu duen Memoria eta Bizikidetzara mahaia. Mahaiari nolabait jarraipena emateko, baina, era ofizialean, batzorde propio bat sortu da agintaldi honetan.

Aurrekontuetan partida bideratu da bizikidetzara lantzeko elkarrizketa politiko esparru segurua eraikitzeko, hau da, esparru bat sortzeko, aukera emango diguna bizikidetzarekin zerikusia duten gai konplexu eta delikatuen inguruan iritzia desberdinak edo kontrajarriak izendatzeko, udalerriak egun dituen beharrak, aukerak eta zailtasunak identifikatu eta egungo testuingurua eta udalean ordezkari politikoak duten alderdiek aurreko legealdian harturiko konpromisoak kontutan harturik, lan plangintza bat zehaztu eta garatzeko. Lan hori egiteko, 25.000 €ko partida bideratu da.



2022. urteko aurrekontuak jarraituko du herritarren ongizateari dagozkion helburuei lehentasuna ematen, eta apustu horren seinale da aurreko urtean %10,33 igo bazen aurrekontu osoa atal honetan, aurreko urtean berau mantendu egiten dela 1,20% igoerarekin. Garapen komunitarioaren atalera udalak bideratuko du guztira 3.898.992,32 €.

Agintaldi honetan Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria saila uztartu egin dira Garapen Komunitarioa sortzeko, sail bi horien arteko harremana zein elkarlana fintzeko eta hainbat zerbitzutan zein arlotan sinergiak sortzeko. Gizarte ongizatearen prestazioak mantentzeaz gain, ikuspegia zabaldu da herriko beharrak asetzeko helburuarekin.

Pertsonak dira lehentasuna eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretatik, ezinbestekoa da laguntza eta programa sozialen mantentzea, eta gure konpromiso irmoa adierazi nahi dugu, behar izanez gero, horiek handitzeko.

Bestalde, agintaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian onartu zuen zerbitzu sozialetako kartarako dekretu berriak abiapuntutzat hartuta, zerbitzuen mapa berri bat ezartzen da Gipuzkoan, eta zehazten da udalek zer zerbitzu eman behar dituzten. Mapa hori eskualdeko herrien artean zehaztu zen aurreko agintaldian eta mankomunitatean mahai bat sortu da zerbitzuak era amankomunean aurrera eramateko. Arrasatek, zerbitzu horien barruan eguneko zentro bat irekiko du mendekotasun baxua duten pertsonentzat bideratua. Obraren lizitazio prozesua 2021. Urtean hasi da eta 2022 urterako amaitua egotea espero da Garibai kaleko 1 zenbakian.

Covid-19aren eraginez hainbat partida indartzeko beharra ikusi zen 2021.eko aurrekontuetan (%40ko igoera) eta partida horrek mantentzeko konpromiso irmoa adierazten da 2022ko aurrekontuetan. Horrela, etxeko laguntza zerbitzua zein pobreziaren kontrako larrialdi planetarako 1.229.000 € bideratu da.

Babesgabeke egoerei aurre egiteko zerbitzuaren aurrekontua 322.950 € izango da eta tutoretzapeko etxebizitzaren laguntza zerbitzurako partida 60.000 €koa.

Aurreko ekitaldian eta herri proiektuari jarraikiz, hainbat egitasmo berri abiatu ziren. Ekitaldi honetan ere aurreikusten da ekimen horiekin jarraitzea, herri proiektuak jarraipena izan dezan. Ekimen berri horien artean dago elikagaien bankua, eta dinamika horrekin jarraitzeko, 4.300 €ko partida bat egokitu da, bideratuko dena lokalaren alokairua ordaintzeko eta beste hainbat gastu estaltzeko, funtzionamendutik eratorritakoak.

Bestetik, aurreko agintaldian abian jarri zen LAN-r-BAI programa berritzailea, erreferentziazko hezitzaileekin kontsumoen inguruan zein estruktura falta duten gazteekin lanketa bat egiteko. Programa pilotu berritzaile horrek Europako laguntza jaso zuen eta aurreko urtean, Foru Aldundiaren babesa jaso du. Programa hau estrategikotzat jotzen du udalak, eta lokalak berritu ditu erabilgaitzaileekin tailerrak egin ahal izateko eta proiektuari egonkortasuna emateko. Proiektuarekin aurrera egiten jarraitzeko 67.507,47€ egokitu dira.

Aurreko agintaldian abian jarri zen alokairu programa berri bat, gazteen emantzipazio aukerak areagotzeko, eta ekitaldi honetan ere 60.000 euroko partida bat bideratu da programaren jarraipena bermatzeko.



Aurreko agintaldian ere Txikitxokoa jarri zen abian, eta legealdi honetan ere aurreikusten da zerbitzuarekin jarraitzea. Horretarako, 39.500 euro bideratu dira. 2022. ekitaldian Udalak Gazteguneari helduko dio. Bizilagunekin egondako arazoak medio gaztegunea Zigarrola auzora leku-aldatu behar izan zuen Udalak baina apustu irmoa dauka erdigunean ere zerbitzua emateko. Horrela, alde batetik Zigarrola auzoko Gaztegunea berria egiteko 38.000€ egokitu dira, 18.150€ lokalaren alokairuari aurre egiteko eta 20.000€ lokala egokitzeko.

Gazteei begirako apustuan ludoteka eta gaztetxoko zerbitzua indartu egin da, %2 igoz bere aurrekontua, 386.230€. Honi gehituta zerbitzuaren funtzionamendu zein garbiketa gastuak udalak gaztetxoko eta ludoteka zerbitzuetara bideratzen duen aurrekontua 435.230€koa da. Era berean, Udalak 10.000€ko partida bat zuzendu du sarrera gutxi dituzten familiak laguntzeko udalekuetan zein eskolaz kanpoko jarduerak egin ahalbidertzeko.

Gainera, udalak Txatxilipurdik gabon garai inguruan antolatzen duen Txikilandia egitasmoa laguntzen jarraituko du 15.000€ekin.

Jolas-parkeak berritzeko 150.000€ bideratu dira eta aurreikusten da Uribe Auzoko zein Legarre plazako jolas-parkeak berritzea. Era berean Santa Marina auzoan parkour parkearen obra exekutatzeko 117.000€ bideratu dira.

Aurreko agintaldian Udalak hasi zuen ekimen berritzaile bat San Juan de Dios ospitalearekin elkarlanean droga-mendekotasuna ardatz zuena herriko ikastetxe komunitatearekin elkarlanean. Programa horren baitan diagnosi bat egin zen eta orain jarraipena eman nahi zaio ekintza planarekin. Horregatik, EKKO proiektuarekin jarraitzeko 40.000€ko aurrekontua bideratu da.

Helburu estrategikoa da Arrasate izatea lan inguru aproposa, herri bizia eta erakargarria, eta horregatik atal honek berebiziko garrantzia du. Arrasate udalerririk beste udalerririk batzuetako langile asko jaso izan du eta jasotzen du, eta horren adibide da demografikoki geldituta dagoen herria dela: 2010. urteaz geroztik, 22.000 biztanleren bueltan mantentzen da; 1980. urtea izan zen herritar gehien izan zituen urtea (26.000 biztanle inguru). Udalerririk erakargarria izaten jarraitu nahi du, lan egiteko nahiz bizitzeko.

Aurreko agintaldian, hausnarketa estrategikoa bat egin zen bailarako hainbat eragilerekin eta enpresarekin "etorkizuneko giltza zarelako" egitasmoaren barruan, eta hortik eratorritako hausnarketa kolektiboaren ondorioz, aspektu hauek jaso ziren herriaren etorkizunera begira: Arrasateko enpresen arteko komunitate balioak, lankidetzak, talde lana indartzea; sinergiak eta proiektu berriak sortzea enpresen artean; "Arrasate" sortzen jarraitzea udalerriarren irudi positiboa emanez eta ekintzak eginez udalerririk erakargarriago bat sortzeko.

Balio handiko elementuak ditu herriak bere alde, oinarritzeko eta elkarlanean aritzeko. Ezagutzaren alorrean, Arrasate da punta-puntako herri bat: kalitateko hezkuntza sistema publikoa, unibertsitatea, estatuko hezkuntza kooperatibarik handiena, lanbide heziketa, zentro teknologikoak. Bide horretan kokatzen da Gautxori esparrua, zeina Mondragón Unibertsitateak garatuko duen esparruaren zati publikoa, udalak ahalbidetuko baitu kanpus berri bat, E-Labs laborategi ireki berritzaile batekin, herrian aukera berriak eskainiko dituen, ekintzaitza teknologikoaren ikuspegiaren barruan. Zati publikoaren garapenera bideratu dira 1.000.770 €.



Gainera, agintaldi honetan erabaki zen enplegua eta hezkuntza batzea, ulertuta enplegu duin bat lortzeko lehen pausua dela formakuntza egoki bat izatea, kontuan izanda herrian badirela eskolak, lanbide heziketako zentroa, unibertsitatea, hizkuntza eskola eta abar. Horregatik, bateratu egin dira arlo horietan sinergiak lortzeko.

Lehentasunetako bat da aurreko legealdian hasitako proiektu berri estrategikoekin jarraitzea, esaterako, Arbigara proiektua, zeinarentzat 5.000 euroko partida bat jaso den. Proiektu horretan uztartzen dira lehen sektorea eta enplegu aukera, lan munduan txertatzeko zailtasunak izan ahal dituen pertsonentzat.

Bestalde, klima aldaketarekin zerikusia daukan proiektu europarrak (42.000 euro) guztiz bat egiten du herri planarekin eta Debagoiena 2030 plataformarekin uztartuko da.

Arrasatera ezarpen ekonomiko berriak erakartzeko ekintzak ahalbidetzeko, 10.000 euro ezarri dira, eta aktibitateak, foroak eta lan azokak gauzatzeko, 15.000 euro. Mondragon City Challenge egitasmoa 2021.urte bukaeran bukatuko bada ere bere ibilbidea arrakastatsua izan da oso, bai partehartzearen aldetik, baita edukien aldetik ere. Horregatik, apustua mantentze aldera 20.000 euro bideratu dira.

Egitasmo hau elkarlanean gauzatzen da Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluarekin, Mondragon Taldearekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Mondragon Unibertsitatearekin zein hainbat enpresa ezberdinekin.

Mantendu egiten dira enpresa berriak sortzen laguntzeko fondoa (35.000 €) eta langabeen formakuntza gastuetarako laguntza programa (30.000 €). Bestalde, langabeak kontratatuzeko laguntza 87.500 euroan ezarri da aurreko urteetako eboluzioari erreparatuta, eta 417.828,37 euro bideratu dira enplegu sustapenaren barruan egoera zaurgarrian dauden herritarrei lan aukerak eskaintzeko.

Udalak jarraituko du kolaborazio publiko-pribatuan lan egiten eta Saiolan erakundearekin lankidetzan; entitate horri egiten zaion aportazioa da 20.000 euro. Era berean, Debagoieneko Mankomunitateko enplegu sailari emango zaio 102.500 euro proiektu ezberdinak ahalbidetzeko.

Hezkuntzan eragitea garrantzitsua da, eta eraikinetan inbertsioak egiteko eskolekin elkarlanean, 102.000 euro bideratu dira. Eibarreko hizkuntza eskolako gela desplazatuak Arrasatera ekartzea lortu zen aurreko agintaldian, eta ematen den zerbitzua handitzeko asmoarekin, behin udal euskaltegia Kulturolara leku aldatzen denean Arima Zubiko lokalak egokituko dira Hizkuntza Eskolak zerbitzua handitu hala izateko. Honetarako 18.000€ bideratu dira.

Aurreko legealdian hainbat inbertsio egin ziren mugikortasunaren bidetik: Makatzenako igogailu publikoa, espaloiak zabaltzea, urbanizazio berriak eta abar. Abian jarri ziren proiektu estrategiko batzuk, auzoetara igotzeko irisgarritasuna helburu zutenak, izan ere, horrek ekarriko du herritarrek autoaren ordezkari aukera jasangarriago bat izatea eta oinezkoak hartzea protagonismoa eta lehentasuna. Gainera, auzoei garrantzia eman zitzaizen deszentralizazio irizpideak (jolas parkeak, irisgarritasuna) erabiliz, eta auzoetan inbertsio garrantzitsuak egin ziren. Agintaldi honetan ere udalak jarraituko du auzoetan inbertsio nabarmenak egiten. Santa Teresa Auzoan egingo den eskuhartzea adibide gisa.



Horrez gain hainbat proiektu eta programa jarriko dira martxan, trantsizio energetikoari bide emateko eta, batez ere, CO₂ isurketak murrizteko. Hiri mugikortasuneko eredu berri bat garatuko da, autoaren erabilera gutxituko duena eta oinezkoa lehenetsiko duena, eraldaketa urbanistikoa gailendu dadin. Bide horretan, martxan jarriko dira hainbat politika, zerikusia dutenak garraio publikoaren zerbitzua berrikustearekin, mugikortasun bertikalarekin jarraituko duten egitasmoak auzoen irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin: bidegorria osatuko da, bizikletaren erabilera bultzatze aldera, TAO sistema berri bat ezarriko da autoaren erabilera mugatuko duena, herria oinezkoentzat eta bizi komunitarioarentzat erosoagoa egingo duen sistema baterantz. Eraldaketa hori proiektu hauek islatuko dute 2022 urtera begira: Galizia kaleko igogailua publikoa, TAO sistema eta Leintzibarreko bidegorria.

Makatzenako igogailua amaitu ondoren, udala, bukatu du Erguin auzorako igogailu sistema eta guztiz murgilduta dago, Mugikortasun Planaren baitan, Galizia eta Agerre kaleetako igogailu sistemaren proiektuan. 2022ko aurrekontuak jasotzen du ekimen honen obrak hasteko 790.000€.

Mugikortasunarekin eta jasangarritasunarekin jarraituz, bidegorriaren jarraipena lehentasunezkoa da. Honenbestez, asmoa da Araba etorbideko bidegorriari jarraipena ematea eta pausoka herria zeharkatuko duen bidegorri sarea bukatzen joatea; auto pribatuaren aurretik hobetsi nahi dira garraio publikoa eta bizikletaren erabilera. Horretarako, azpiegiturek samurtu behar dute eraldaketa, eta Etxaluze - Maala Ekobulebarra amaitzeko, 533.393,47 € jaso dira.

Bidegorri sarearekin jarraituz, Araba etorbidea eta Gipuzkoako Foruen plaza lotuko dituen bidegorria eta Leintzibar kalea hartuko duen bidegorria lotzeko, 380.000 €-ko partida jaso da zati horretako obrarekin hasteko behin proiektua amaitu orduko.

Arrasaten TAO sistema ezartzeko prozesu partehartzaileak eragin du hausnarketa komunitarioa, helburu duena biztanleek garraio publikoa hobestea autoaren aurretik. Modu horretan, lortu nahi da bide publikoan auto pribatuaren presentzia gutxitzea, herritarrek garraio publikoa zein bizikletaren erabilera hobestea, eta herriko CO₂ isurketa zein kutsadura akustikoa murriztea, herri jasangarri batetarantz pausoak ematen joateko. Herritarrek zein ausazko taldeak egindako lan baliotsua harturik, TAO sistema bat onartu da eta lehiaketa publiko bitartez esleitu da zerbitzua. Zerbitzua aurrera eramateko, 470.000 €-ko partida bat jaso da.

TAO sistema ezartzearen helburuetako bat da garraio publikoa sustatzea; ildo horretan, gune batzuk sortuko dira herritik kanpora aparkatzeko; esaterako, Arruenan, eta abian jarriko da autobus linea berri bat parkingak eta zentroa zuzenean lotuko dituen. Autobus linea berria abian jarri da, linea 3, eta garraio publikoaren apustuarekin aurrera egiten jarraitzeko 630.000€ bideratu dira, eta garraio publikoen tarifen defizita osatzeko, 40.000 €.

Jasangarritasunaren ildotik argiteriako inbertsioak egiteko kontu saila indartu egin da 20.000 €-an (100.000 € guztira) eta zentro publikoetako argiteria hobetzeko 70.000€ bideratu dira.

Zalduspeko egitasmoarekin aurrera jarraitzeko 2021ko aurrekontuak jasotzen du 400.000 €-ko partida bat, zeina erabiliko den bertako pabiloi zaharrak eraisteko behin eraikin zahar horiek erabiltzen dituzten eragileen leku-aldaketa burututa. Horrela, Zalduspe gunearen berrantolaketa pauso gehigarria jasotzen du 2022ko aurrekontuak.



Garagartzako auzoko fibrozementuaren aldaketarekin jarraitzeko 350.000€ bideratu dira eta asfaltatuen partida nabarmen igo da izanik kontusail osoa 300.000€ takoa.

Herri barruan jarritako abiadura radarren gaineko balorazioa positiboa izan da, eta egitasmoarekin jarraitzea aurreikusten da; horrela, radarretan zinemometroa alokatzeko, 70.000 euroko partida bat jaso da. Era berean aire kalitatea neurtzeko kabina bat jartzeko 10.000€ bideratu dira gure herriko aire kalitatea, Jose Maria Arizmendiarieta plazaz haratago, beste eremu batzuetan ere neurtzeko.

Etxezarreta basoaren erosketa gauzatu eta gero, basoa errekuuperatzeko, 85.000 euroko partida bat jaso da. Era berean, gune esanguratsuen berreskurapena egiteko 15.000€ bideratu dira. Garagartzako ortu ekologikoei dagokienez, ortuetan inbertsioak egiteko 16.000€ ko partida egokitu da eta bertan konponketak egiteko 7.000€ partida gehigarri bat.

Arrasate herriak euskaraz bizi nahi du eta azken 30 urteotan, euskararen normalizazioan, aurrerapauso handiak eman ditu. Ahalegin handia egin da, esate baterako, eskola zein euskaltegietan belaunaldi euskaldunak gizarteratzen. Eta ahalegin handia egin da zenbait alorretan ere, besteak beste, merkataritzan, zerbitzuetan, herri komunikabideetan, enpresetan eta udal administrazioan. Hainbat mugimendu aitzindari izan dira, bai komunikabide arloan, bai herri aktibazioan.

Euskara zerbitzuaren helburu nagusia da egin beharreko ahaleginen plangintza egitea, koordinatzea, sustatzea eta gauzatzea, gizarrean eta administrazioan euskararen erabilera normalizatu dadin. Horretarako, gidalerro nagusi bi ditu: udal barrurako erabilera plana, plan nagusia udalean lan hizkuntza eta zerbitzu hizkuntza izateko eta Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), helburu nagusia baita arrasatearrek edozein esparrutan aukera izatea euskara gehiagotan erabiltzeko. Erronka nagusia da jakitetik erabiltzera pasatzea, eta ekintzen planifikaziorako kontuan hartzen dira zerbitzutik egiten diren neurketak (kale neurketak, kirol entrenamenduen neurketak...). Erabilera indartzeko, udalak bat egin izan du eta bat egiten jarraitzen du Euskaraldiarekin.

Euskararen eragileekin batera, Kluster Soziolinguistikoaren laguntzarekin, udala lanketa bat egiten hasi zen 2017an hizkuntza aktibazioaren inguruan. Euskararen eragileekin egindako bilera batean jaso zen Euskalgintza soziala eta instituzionala apalaldian murgildua zegoen sentsazioa. Hortik abiatuta, erabaki zen hausnarketa prozesu bat martxan jartzea herrietan, euskararen erabilera sustatze aldera. Hautsak astindu eta egiturak aldatzeko beharra ikusirik, egoki ikusi zen modu eraginkor eta aktiboago batean lan egiteko moduak aztertzea, eta horretarako beharrezkoa da herrian elkarrekin jarduteko moduak aztertzea eta probatzea, lan egiteko modu berriak erakitzea, gakoak identifikatzea eta metodologia sortzea. Prozesu horretatik eratorritako egitasmoen bide emateko, 15.000€ jaso dira – aurreko urtean baino 5.000€ gehiago - eta 25.000 € ekintzak egiteko.

Bestalde, euskal hedabideak diruz laguntzen jarraituko dugu, hala nola Goiena prentsa eta telebistarako, 165.703 euroko partida bat bideratu da, eta Goiena irratarako 30.000 euroko partida bat. Aldiz, Mondraberrri aldizkari digitalari 30.000 euroko partida bat bideratuko zaio, eta Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin sinatutako hitzarmenari bide emateko, 44.345 euroko partida bat gauzatu da, zeinak Jokin Zaitegi beka ere barneratzen duen, Nobel sari bat euskarara itzulia izan dadin ahalbideratzeko. Euskarako dirulaguntzen partida mantentzen da 88.374 euroekin.



Kulturari dagokionez, behin Kulturola eta Juan Artzamendi Musika etxea bideratuta 200.000€ egokitu dira Juan Artzamendi eraikina ekipatzeko. Zentzu berean, dirulaguntza lerroa ireki da, 30.000€ko partidarekin, kultur eragileek izan dezaten laguntza ekipamenduak eskuratzeko Kulturolan izango dituzten lokal berrietarako.

Horrela ba, 2022ko aurrekontuan izango dute presentzia handiago Amaia Antzokiak eta Kulturatek: Amaia Antzokiko galdara aldatzeko eta ekipamendua berritzeko 80.000€ bideratu dira eta Kulturateko ekipamendua berriztatzerako 50.000€.

Egoitza berriak erantzungo dio Udal Euskaltegiak behar duen lokal egoki baten eskariari, Euskal Kultura ardatz duten beste eragile batzuekin batera. Asmoa izan da euskaltegia uztartzea gainontzeko elkarte zein eragileekin, eta ahalbideratzea euskara ikastera datorren pertsonak aukera izatea euskal kultura ezagutzeko, euskal dantzak, bertsoaritzak, trikitixa eta abar. Euskaltegi funtzionamendu gastuetarako 41.700€ bideratu dira.

Bestalde, aurreko urtean sortu zen antzerki eskola Doke Antzerki Taldearen eskutik eta ekimenari jarraipena emateko 10.000€ bideratu dira. Era berean, Goikobalu Abesbatzari 10.000€ dirulaguntza egokitu zaio eta Txorbela otxoteari ere 6.000€ko laguntza, aurreko urtean hasitako bidea jarraiki.

Covid-19aren pandemiak eragotzita 2021 urtean ezin izan dira jaiak ospatu baina 2022 ekitaldirako Udalak 603.000€ bideratuko ditu jaiak zein kultur ekintza ezberdinak ospatzeko: auzoetako jaiak ospatu ahal izateko 75.000€ bideratu dira eta herriko jaiak ospatzeko 250.000€. Horri gehitu behar zaio kultur ekintzak aurrera eramateko 350.000€ eta Mondra & Roll jaialdia aurrera eramateko edo Arrasate Blues jaialdia aurrera eramateko partidak (14.000€ eta 20.000€ hurrenez-hurren).

Helburu nagusia da zerbitzuen eskaintza izatea askotarikoa eta kalitatekoa, eta, horretarako, ezinbestekoa da kasu bakoitzean lankidetzan aritzea herritarrekin, erakundeekin eta eragileekin. Jasotzen diren jarduera guztiak garrantzitsutzat jotzen dira, eta, horregatik, Herri Proiektuaren parte dira. Hala ere, jarduera batzuek ahalegin handiagoa eskatzen dute, bai plangintzan, bai baliabideetan. Ildo horretatik, Arrasate udalerrri aktiboa bilakatzeko ahalegina aipatu behar da. Izan kirola, izan ariketa, izan jarduera fisikoa, hirurak izan behar dira herritarren eskura egon beharreko aukerak, Arrasate izan dadin pertsona aktiboen bizileku proposa.

Idea hori landu zen 2017an, Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoan, eragile askoren parte hartzearekin egindakoa, eta hainbat proposamen zehaztu zen, hala nola kirol eremuak auzoetara irekitzea, aire zabalean ariketa fisikoa sustatzea, kirol elkartegintzaren lankidetzak egiturak dinamizatzea, kirol ekitaldi garrantzitsuak antolatzea, kirol turismoa bultzatzea eta kiroldegi berri bat eraikitzea. 2021 uretan aurrera eraman da Arrasateko kirol azpiegituren mapa diseinatu eta zehaztea herritarrekin, kirol instalakuntzen erabiltzaileekin zein kirol klubekin. Lan hori urte bukaeran amaitu egingo denez 100.000€ bideratu dira instalakuntza definitiboaren proiektua 2022 urtean idazteko.

Zehar-lerrozkotasunaren logikaren barruan, ezinbestekoa da gizartearen berdintasuna bultzatzea, helburua baita gizartearen egituraz eraldatzea eta aukera berdintasuna bermatzea.

Osoko Bilkurak 2018ko ekainaren 5ean mozio bat onartu zuen, zeinak eskatzen zuen udaleko sail guztietan baliabidea jarriko zirela berdintasun politiken inguruan formazio saioak egiteko.



Berdintasun sailean partida espezifikoko bat sortu zen aurreko agintaldian, eta hura mantentzea erabaki da, beste sail estrategiko batzuekin zehar lerrozkotasuna lantzeko eta aipaturiko formazioa eskaintzeko. Hura jorrazteko, 20.000 euro bideratu dira.

2006an Arrasateko Udalak “Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Plana” onartu zuen, eta hasierako apustua 2006-2010 plangintza izatea erabaki bazen ere, 2012an erabaki zen plangintza 2013ra arte luzatzea.

Urte horietan guztietan Arrasateko Berdintasun sailak helburu eta jarduera asko egin baditu ere, aipaturiko planean jasotzen zirenak, udalak premia zuen plana ebaluatu eta dagokion jarraipena egiteko, eta lan hori 2018 urtean gauzatu zen. Horregatik, indarkeria matxistaren kontrako bigarren planari jarraipena emateko, partida mantendu da, 60.000 €. Bestalde, ekintzetarako partida 120.000 € tan mantentzen da orain bi urte 20.000€tan handitu ondoren.

Kontuan hartu behar da 2016. urtean Emakume Txokoaren egoitzak ez zirudielako egokiena zerbitzua eskaintzeko, gertakari bi deserroso zirela-eta, eta lekuz aldatzea proposatu zela Uarkapetik gertu dagoen leku batera.

Arrasateko Udalak Emakume Txokoa lekuz aldatzeko proposamena aintzat hartu eta proiektua idatzi zuen, eta Berdintasun teknikariarekin batera bermatu zuen udal jabetzako lokal publiko baten egokitasuna, Uarkapen dagoena. Lanketarekin aurrera jarraitzeko 20.000 eurotako partida sortu da.

Tokiko merkataritzak berebiziko garrantzia du eta izaten jarraitzen du kontuan izanda pandemiaren eraginez kaltetua suertatu den sektorea izan dela. Sektoreak bizirik mantentzen ditu herriko kaleak, eta ehun ekonomikoaren parte da. Ildo horretan, partida batzuk jaso dira tokiko merkataritza sustatu eta, era berean, baserriaren azokari bultzada emateko. Herriko azokaren printzipioak dira bertakoa izatea (0 km) eta komunitatearentzat espazio, ingurugiro eta baserri munduaren mantentzea; herriko identitatea markatzen duten elementuak dira.

Merkataritza zein nekazaritza arloko ekintzak burutzeko 13.000€ko partida bideratu da eta tokiko merkataritza suspertzeko ekintzak egin ahal izateko 25.700€ko partida.

Ezinbestekotzat jotzen da merkataritza alorreko eragileekin elkarlanean aritzea, elkarlanaz baliaturik helburua da amankomunean jardutea. Horregatik herriko merkatarien elkarlanean hitzarmena mantentzeaz gain (31.000€), gabonen bueltan ekintzak elkarrekin antolatzeko gabonetako hitzarmen berezia abian jarriko da. (20.000€).

Digitalizazioarekin aurrera egin ahal izateko 50.000€ bideratu dira eta gure tokiko merkataritzarekin zein beste instituzio batzuekin batera bono kanpainak egin ahal izateko 30.000€.

Alde Zaharreko hirigintza plan berezia aldatzeko prozesua bukatuta malgutu egingo dira alde zaharreko irizpideak eta horien artean egongo da zuntz optikoaren ezarpena. Udalak lortu zuen jada akordio bat telefonia operadore batekin eta lanak hasita daude. Lan horiei jarraipena emateko Udalak 200.000€ partida egokitu du.

Aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak aipatu ondoren, guztizko zenbatekoak aztertuko ditugu, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Arrasateko Udalaren Aurrekontu bateratua, Arrasateko Udalaren Aurrekontuak bakarrik osatzen du, eta honako hau da:




ERAKUNDEA	Aurrekontua 2021	Aurrekontua 2022	Aldea eurotan	% 2022/2021
ARRASATEKO UDALA	36.202.466,00	37.737.291,17	1.534.825,17	% 4,24

Ondoren, gastuen atalaren banaketa aztertuko da, bai kapituloka eta baita batzordeka ere, aurreko ekitaldiarekin alderatuta:


GASTUEN AURREKONTUA KAPITULOKA 2021-2022 (mila €)

Kapitulua	Hasierako aurr. 2021	% 2021	Hasierako aurr. 2022	% 2022	Aldea	2022/2021
I Pertsonal gastuak	11.922,80	%32,93	12.289,73	%32,57	366,93	%3,08
II Ondasunak eta zerbitzuak	12.290,16	%33,95	12.553,48	%33,27	263,31	%2,14
III Interesak	7,50	%0,02	2,10	%0,01	-5,40	%-72,00
IV Transferentzia arruntak	5.204,03	%14,37	5.053,52	%13,39	-150,51	%-2,89
V Kreditu globala eta bestelako ustekab.	377,76	%1,04	320,87	%0,85	-56,89	%-15,06
VI Inbertsioak	5.015,99	%13,86	5.535,39	%14,67	519,40	%10,35
VII Kapital transferentziak	1.283,93	%3,55	1.864,99	%4,94	581,07	%45,26
VIII Finantz aktiboen aldaketak	90,00	%0,25	117,20	%0,31	27,20	%30,22
IX Finantz pasiboen aldaketak	10,30	%0,03	0,00	%0,00	-10,30	%-100,00
GUZTIRA GASTUAK	36.202,47	% 100	37.737,29	%100	1.534,82	%4,24





2021 ETA 2022KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULOKA




GASTUEN AURREKONTUA BATZORDEKA 2021-2022 (mila €)


Kapitulua	Hasierako aurr. 2021	% 2021	Hasierako aurr. 2022	% 2022	Aldea	2022/2021
01- Gobernantza eta segurtasuna	3.050,19	% 8,43	3.087,37	%8,18	37,18	%1,22
02-Kultura eta euskara	5.191,65	% 14,34	4.043,35	%10,71	-1.148,30	%-22,12
03- Zor finantzieroa	17,80	% 0,05	2,00	%0,01	-15,80	% -88,76
04-Garapen Komunitarioa	3.852,88	%10,64	3.898,99	%10,33	46,11	%1,20
05-Hirigintza, Ing eta mugikortasuna	3.743,61	%10,34	5.361,10	%14,21	1.617,49	% 43,21
06-Barne antolaketa	3.235,92	%8,94	3.736,53	%9,90	500,62	% 15,47
07-Tokiko merkataritza	544,03	%1,50	312,46	%0,83	-231,58	%-42,57
08-Udal zerbitzuak (OZMA)	11.786,33	%32,56	12.411,74	%32,89	625,41	%5,31
09-Hezkuntza eta enplegua	1.925,17	%5,32	1.817,90	%4,82	-107,27	%-5,57
12-Kirola	2.101,56	%5,81	2.297,34	%6,09	195,78	% 9,32
13-Berdintasuna	458,33	%1,27	468,51	%1,24	10,18	% 2,22
14-Bizikidetzeta eta partehartzea	295,00	%0,81	300,00	%0,79	5,00	% 1,69
GUZTIRA GASTUAK	36.202,47	% 100	37.737,29	% 100	1.534,83	% 4,24



2022KO AURREKONTUKO GASTUEN BANAKETA BATZORDEKA



2021 ETA 2022KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA BATZORDEKA







Sarrereren atala kapituloka, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, honako hau da:

SARRERA AURREKONTUA KAPITULOKA 2021-2022 (mila €)

Kapitulua	Hasierako aurr. 2021	% 2021	Hasierako aurr. 2022	% 2022	Aldea	2022/2021
I Zuzeneko zergak	7.058,00	19,50%	6.931,00	18,37%	-127,00	-1,80%
II Zeharkako zergak	901,00	2,49%	900,00	2,38%	-1,00	-0,11%
III Tasak eta prezioak	7.539,00	20,82%	7.464,60	19,78%	-74,40	-0,99%
IV Transferentzia arruntak	16.212,10	44,78%	18.193,48	48,21%	1.981,38	12,22%
V Ondare sarrerak	209,30	0,58%	208,91	0,55%	-0,39	-0,19%
VI Ondarea saltzea	501,10	1,38%	1.751,10	4,64%	1.250,00	249,45%
VII Kapital transferentziak	492,00	1,36%	591,00	1,57%	99,00	20,12%
VIII Finantz aktiboen aldaketak	90,00	0,25%	117,20	0,31%	27,20	30,22%
IX Finantz pasiboen aldaketak	3.200,00	8,84%	1.580,00	4,19%	-1.620,00	-50,63%
GUZTIRA GASTUAK	36.202,50	100,00%	37.737,29	100,00%	1.534,79	4,24%





Azkenik zorpetze mailari dagokionez, nahiz eta 2021eko aurrekontuan 3.200.000 euroko mailegua zegoen aurreikusita, aipatzekoa da azkenean ez dela beharrezkoa izan, eta ez dela eskuratu mailegu hori. Hortaz, esan behar da 2021 urtea zor bizi gabe bukatu dugula, honen kopurua 2021-12-31an 0 eurokoa da.

Bestalde, 2022ko aurrekontuan 1.580.000 euroko mailegu bat aurreikusten da, eta urtean zehar ikusiko da ea beharrezkoa den mailegu hori eskuratzea.